

ESKOLA KONTSEILURAKO HAUTESKUNDEAK

Zer da Eskola Kontseliua - OOG

Eskola Kontseilua Ordezkapen Organo Gorena da eta bertan parte hartzen dute hezkuntza komunitateko sektore desberdinak. Hauen bidez ikastetxeari eragiten dioten erabakietan parte hartzen dute familiek eta irakasleek.

Eskola Kontseilua osatzea derrigorrezkoa da ikastetxe guztietan.

Zertarako da Eskola Kontseilua - OOG

Eskola Kontseilu batek erabakiak hartzen ditu arlo garrantzitsuetan. Esaterako:

- Ikastetxearen eskola proiektua. Hau da, ikastetxeak zer lortu nahi duen gure seme-alaben hezkuntzarekin, Ikastetxearen lerro nagusiak zehazten ditu (helburuak, baloreak...)
- Eskola Jantokia.
- Aurrekontua.
- Egutegia eta ordutegia.
- Eskolaz-kanpoko ekintzen eta ekintza osagarrien irizpideak zehazten dira.
- Urteko programazioa.

Zertarako da komenigarria familiek Eskola Kontseiluetan parte hartzea

Parte hartuz gero, eskolaren agintea eta seme-alaben heziketa hobetzeko ideiak eman ditzakegu, betiere irakasle-goarekiko erantzukizun bateratuarekin eta ikastetxearen esparrutik. Eskola Publikoaren helburuetako bat, Legeak 3.2 artikuluan dioenez, hau da: "*irakasleek, gurasoek eta ikasleek herri-ikastetxeetan kudeaketan demokrazia-legez parte hartzeko duten eskubidea gauza dadin sustatzea eta bermatzea; parte-hartze hau Eskola Kontseiluen bidez egiten da*".

Eskola Kontseiluan parte hartuz, zentzuberan zuzendu dezakete hezkuntza-jarduera familiek, irakasleek eta irakasle ez diren langileak.